

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2814

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 25ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; horren bidez argitara ematen da Lanbideko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez esleitzen baitira maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. kapituluan eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2017an finantzatzeko baliabide ekonomikoak, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzera bideratutakoak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2017ko maiatzaren 24ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu, zehazki maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. kapituluan eta Desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak finantzatzera bideratuko direnak, 2017an.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2017ko maiatzaren 24ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira 2017ko ekitaldian finantzatzeko maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. kapituluan eta Desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak. Ebazpen honen eranskinen jasota dago erabaki horren testua.

Bigarrena.– Jakinaraztea argitara ematen den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzukoaren erabakiak ondorioak izango dituela ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, zeinaren bidez deialdia onartzen baita, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 25a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ERABAKIA,
ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA 2017KO EKITALDIAN
FINANTZATZEKO MAIATZAREN 11KO 1451/1983 ERREGE DEKRETUAREN II. KAPITULUAN
ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA MINISTERIOAREN 1994KO APIRILAREN 13KO AGINDUAN EZARRITAKO
LAGUNTZAK

Maiatzaren 11ko 1451/1983 Dekretuaren II. kapituluaren xedea da desgaitasuna duten langileen enplegua sustatzeko zenbait neurri arautzea, ohiko enpresetan lana aurkitzen lagunduko dietenak; horretarako, diru-laguntzak bideratuko dira, gizatalde horretako kideen kontratazio mugagabearen alde egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu egin zitzaizkion Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan egiten zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak. Geroztik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumena da enplegu-programa orokorrak eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten gizataldeei zuzendutako programa espezifikokoak kudeatzea. Hortaz, Lanbide da maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. kapituluaren aurreikusitako laguntzak kudeatzeko erakunde eskuduna.

Une honetan ez dago eginda eta indarrean araudi autonomikorik, desgaitasuna duten pertsonak ohiko lan-merkatuan integratzeko laguntzarik arautzen duenik. Hortaz, bien bitartean, laguntza-programa hau exekutatu beharra dago, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorraren testu bateginean bildutakoarekin bat etorrira (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori; 2013-12-03ko BOE).

Maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuak indarraldi mugagabea du, eta laguntza hauek ez dira konkurtsoaren teknikaren bidez ematen. Programa honetara bideratzen den aurrekontu-kreditua, edo hori eguneratetik sortzen dena, izango da laguntzak emateko muga, berariaz hala jasota baitago Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduaren hirugarren xedapen gehigarrian. Agindu horren bidez, arautzen da desgaitasuna duten langileen enplegua sustatzeko laguntzak eta diru-laguntzak emateko modua, maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. kapituluaren xedatutakoa.

Hori dela eta, diru-laguntzak emateko prozeduran errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoarekin bat etorrira, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean izango duen aurrekontua onartu ondoren, jakinarazi egin behar da zein den aipatutako errege-dekretuan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa, bai eta zenbateko hori eguneratetik sortzen den zenbatekoa ere.

Bestalde, publikotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak errespetatzeko, komeni da laguntzen onuradun izan daitezkeenei informazioa ematea, diru-laguntzen prozedurarekin eta aplikatu beharreko erregimen juridikoarekin zerikusia duten alderdi jakin batzuei buruz.

Adierazitakoa oinarritzat hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legea onetsita egonda, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2017ko maiatzaren 24ko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Diru-baliabideak esleitzea, 700.000,00 euro, 3211-Enpresa programaren kargura, hain zuzen ere, maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. kapituluaren eta desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak finantzatzeko.

Kopuru hori eguneratu egin daiteke, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

Emango diren laguntzen bolumen osoak ezin izango du gainditu zenbateko hori, edo hori eguneratetik sortzen dena.

Desgaitasunak dituzten pertsonen enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzek Europako Gizarte Funtsaren % 50eko finantziarioaren laguntza izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko EGIF 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan.

Bigarrena.– Laguntza horien kudeaketari buruzko alderdi hauen gaineko informazioa ematea (Euskal Autonomia Erkidegoko berezko diru-laguntzen antolakuntzako eta erregimen juridikoko araudiak aplikatzeak eragina izango du alderdi horietan):

– Erabaki honetan aipatzen diren diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira. Eranskinean jasota dago eredu ofiziala, eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango da hori: <http://www.lanbide.euskadi.eus> webgunean; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, Vitoria-Gasteiz 01009); eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurraldeetako enplegu-bulegoetan eta -lokaletan.

Horretaz gain, eskaerak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta erakunde autonomo horren zuzendari nagusiak ebatziko ditu.

– Ebazteko, gehienez sei hileko epea izango da diru-laguntza eskaera aurkezten den egunaz geroztik, eta, epe hori igarotakoan, ebazpenik eman ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertuko da.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta, beraren aurka, aukurako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

– Diru-laguntzen programa honetan diru-laguntzen honako araubide juridiko hauek aplikatu beharko dira: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. titulua; eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan xedatu baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak; eta horiekin batera Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta

uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan dauden oinarrizko arauak (887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu da Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua).

Hirugarrena.– Informazioa ematea Europako Gizarte Funtsaren laguntzaz finantzatutako laguntzei aplikatu dakiekeen arau erkideek eraginpean hartzen dituzten laguntzak kudeatzeko alderdiei buruz, beroriek bete beharko baitituzte onuradunek:

– Berariaz jasotzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren artean finantzatu direla laguntzak, EAEko 2014-2020 EGIF Programa Operatiboaren barruan, deialdi honen babespean diruz lagundutako kontratuak komunikatzeko eta hedatzeko material eta ekintza guztietan. Kontratu horien onuradunek beraiek eta kontratu-egileek jakin behar dute elkarrekin finantzatu direla.

Era berean, diru-laguntzaren erakunde onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115.2 artikuluan aipatutako zerrenda publikoan jasoko da.

– Gordetzea diruz lagundutako kontratu guztiei buruzko dokumentazioa, izan baitaiteke inoiz egiaztatzea deialdi honen arabera lotu zaizkien konpromiso guztiak eta betebeharrak bete egin direla, 2023ra arte, gutxienez.

– Egiaztatze-jarduketei baiezkota ematea, hauek eginez gero: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-istantziak.

Laugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari agintzea erabaki hau argitara eman dezala Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

ESKABIDEA		
16	PERTSONA DESGAITUEI KONTRATU MUGAGABEA EGITEKO EDO ALDI BATERAKO KONTRATUAK KONTRATU MUGAGABE BIHURTZEKO DIRU-LAGUNTZAK	Urtea: 2017
	LGMaren 1994ko apirilaren 13ko Agindua	
 EUROPAK BATASUNA <small>UNION EUROPEA</small> <small>EUROPAKO BIZIARTE FUNTZA</small> <small>FONDO SOCIAL EUROPEO</small>		

ESKATZAILEA:

SARRERA-ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA

ARABA	01	
GIPUZKOA	20	
BIZKAIA	48	

ESPEDIENTE-ZK.

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--



ESKABIDEAK NON AURKEZTU

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan, Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz eta Lanbideko enpleguko lurralde-bulegoetan:

ARABAKO LURRALDE-BULEGOA
Antillak pasabidea 14, behea
VITORIA-GASTEIZ

BIZKAIKO LURRALDE-BULEGOA
Ertzilla kalea 4
BILBAO

GIPUZKOAKO LURRALDE-BULEGOA
San Martzial 12
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu formulario honetan ematen dituzun datu pertsonalak erregistratuta geratuko direla Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren «ENPLEGURAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK» izeneko fitxategian. Fitxategi horren helburuak hauek dira: Lanbideren eskumenekoak diren enplegu- eta prestakuntza-politika aktiboekin lotutako diru-laguntzak kudeatu eta kontrolatzea; beste administrazio eskudun batzuekin lankidetzan aritzea eta koordinatzea Lanbideren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko; iruzurraren jazarpena eta estatistika-helburuak; Datuak Babesteko Euskal Agentziaren erregistroan behar bezala inskribatuta egotea, eta datuen segurtasun-neurri egokiak izatea.

Administrazio publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki iritzitako egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Halaber, jakinarazten dizugu datuok legezko kasuetan bakarrik jakinaraziko direla, eta fitxategi honi dagokionez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, foru- aldundiei eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorri jakinaraziko zaizkio.

Entitate eskatzaileak honako hau bermatzen du dokumentu hau sinatzean: dokumentuko datu pertsonalen titularrak baduela Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua edukia berri, eta berariazko baimena eman duela datuok – erakunde eskatzailearen titulartasuneko fitxategietan jasotakoak– orain tratatu ahal izateko.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, datuetara iristeko eskubidea balia dezakete interesdunek, baita haiek ezeztatzeko, zuzentzeko eta tratatzearen kontra egiteko ere. DBLOk berariaz onartzen ditu eskubide horiek, eta, horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin jarri behar duzu harremanetan (Zerbitzu Zentralak, Jose Atxotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz, Araba).

2017ko ekainaren 7a, asteazkena



PERTSONA DESGAITUEI KONTRATU MUGAGABEA EGITEKO EDO ALDI BATERAKO KONTRATUAK KONTRATU MUGAGABE BIHURTZEKO PIZGARRIEN ESKAERA

Diru-laguntza hau Europako Gizarte Funtsak %50 kofinantzatzen du (EGF Euskadi 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan)

ENPRESAREN DATUAK

IFZ/IFK/AIZ

<input type="checkbox"/>	LANALDI OSOA
<input type="checkbox"/>	LANALDI PARTZIALA
<input type="checkbox"/>	ALDIZKAKO FINKOA

Jauna/Andrea	NAN	KONTZEPTUA (1)
ENPRESAREN IZENA	HELBIDEA	
HERRIALDEA	UDALERRIA	POSTA KOD.

(1) Ordezkatzearen izaera

KOTIZAZIO KONTUAREN DATUAK

ERREGIMENA	PR. K.	ZENBAKIA	K. D.	JARDUERA EKONOMIKOA
------------	--------	----------	-------	---------------------

LANTOKIKO DATUAK

HERRIALDEA	UDALERRIA
------------	-----------

Goiago identifikatu den **ENPRESAK** maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuan, urtarrilaren 30eko 170/2004 (urtarrilaren 31ko BOE) aldatzen duenean, ezarritako pizgarriak **ESKATZEN** ditu, ondoren adierazitako langileari kontratu mugagabea egiteko edo aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzeko:

JAUNA/ANDREA	IFK/AIZ	JAIOTZA DATA
GSKO AFILIAZIO ZK.	PRESTAKUNTZA MAILA	NAZIONALITATEA
BIZI DEN UDALERRIA	BIZI DEN HERRIALDEA	

Kontratututako langilearen eskaera honekin batera, honako **DOKUMENTAZIO** hau aurkeztu da (1):

- Lan-kontratu mugagabea edo mugagabe bihurtu izanaren jakinarazpena, eta luzapenak, egonez gero.
- Desgaitasunaren ziurtagiria edo ezintasungatiko pentsiodunaren ebazpena
- Langileak burutuko dituen zereginen deskribapena

(1): Originala edo fotokopia konpultsatuak

2017ko ekainaren 7a, asteazkena



AITORTZEN DUTE

Langileak:

Pertsona desgaitua dak (1) emandako ziurtagirian ezartzen den bezala

Enpresaren ordezkariak:

Enplegu programek ematen dituzten onurak jaso ditzake, ez baita kaleratua izan, 5/2000 Legegintza Errege Dekretuak ezartzen dituen baldintzetan

Hemen aurreikusten diren onurak, beste Administrazio Publikoek ematen dituztenekin metatuak (asmo berberarekin), ezin dute urteko soldaten kostuaren % 60 baino gehiago izan.

Eskatzen duen diru-laguntza ematen bazaio, enpresak konpromiso hauek onartzen ditu:

- Gutxienez 3 urtetan mantenduko da kontratatutako langilea bere lanpostuan
- Bidegabeko kaleratzea gertatuz gero, beste langile desgaitu bat kontratatu beharko du
- 1451/83 eta 170/04 Errege Dekretuetan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak ez baditu betetzen, jasotako diru-laguntzak itzuli beharko ditu.
- Enpresak, kontratu mugagabeagatik edo aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzeagatik, enplegua sustatzeko neurrietarako onura hauek ESKATZEN ditu
 - lanaldi osoa izateagatik 3.907 €
 - lanaldi partziala izateagatik € (2)

(1) Aipatu Erakunde Ofiziala zein den

(2) Aipatu dagokion zenbatekoa eta kontratuan adostutako lanaldi partzialarekiko proportzionatuta

ZINPEKO AITORPENA

Nik, jaunak/andreak,
..... enpresa eskatzailea ordezkaturik eta haren izenean, ZIN EGITEN DUT:

(dagokiona X batez seinalatu)

Lehenengoa.-

 Ez nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako inolako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrak ezartzeko prozeduraren baitan.

Bigarrena.-

 Eskatzaileak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapenik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere.

Hirugarrena.-

 Ez dut sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, ezta euskal herri-administrazioen laguntza eskuratzeko debekurik ere, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005) dela bide.

Laugarrena.-

 Eskari honen ezarritako datu guztiak, egiazkoak dira.

Bostgarrena.-

 Ez dagoela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurrez ikusitako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

NORTASUN DATUAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ETA FORU OGASUNAREN ZERGA-BETEBEHARREN ORDAIKETEN EGOERA

EGIAZTATZEKO BAIMENA (dagokiona X batez seinalatu)

 BAI: Lanbide E.E.Zari baimena ematen diot nire nortasun datuak eta Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga-betebeharren egoera, elektronikoki egiaztatzen.

 EZ: Lanbide E.E.Zari ez diot baimena ematen nire nortasun datuak eta Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga-betebeharren egoera, elektronikoki egiaztatzen.
(Oharra: baimenik ematen ez bada NAN/IFK eta ziurtagiriak, aurkeztu behar dira)

201....(e)ko.....-ren (e)an

Sinatuta:

4/4

